

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Negozio eredu guztiek funtsezko baliabide batzuk behar dituzte balio proposamena sortu eta eskaintzeko, merkatuetara iristeko, merkatuko segmentuekin harremanak ezartzeko eta sarrerak sortzeko.

Funtsezko baliabideak, honela sailkatzen ditugu:

BALIABIDE FISIKOAK: lokal bat alokatuko dugu, bertan gure jostailuak alokatzeko. Lokal horretarako, mahaiak, bertan jolasteko jolasak, estanteriak, aulkiak, jostailuak... erosiko ditugu, lokalak 165m neurtzen ditu eta hilero 550€ ordainduko ditugu. Jostailuen hasierako inbertsioa 7000€-koa izango, horrela 140 jostailu lortuko ditugu. Gero, hilabetero 1000€ gastatuko ditugu jostailuak erosten. Hortaz aparte, akordio bat egingo dugu jostailuak ekoizten dituzten enpresa batekin eta horren truke gu publizitatea egingo diegu.

BALIABIDE INTELEKTUALAK: Web orri bat sortuko dugu, gure bezeroek, eskuragarri informazioa izan ahal izateko, bestalde, kontaktu telefono bat eskainiko diegu bezeroei, haiek, edozein galdera izan arren, deitu eta argitzeko.

GIZA BALIABIDEAK: Lehenik, ez dugu pertsonarik kontratatuko gure enpresa arrakasta handia izan arte, eta denbora horretan, txandakatu egingo gara lan guztiak egiteko: Aste bakoitzean, gure taldeko 2 pertsonak lan egingo dute finantzaketan, kontabilitatean, umezaintzan eta liburutegia antolatzen.

FINANTZA BALIABIDEAK: Hasieran mailegu bat eskatu behar izango dugu banketxe batera non 10.000€-koa izango da eta bost urteta ordainduko dugu. Horretarako 190€ ordainduko ditugu hilero. Horri esker, soldatak, altzairuak eta jostailuak ordaindu ahal izango ditugu.